

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

773/2025 Erabakia, abenduaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Araba(n) Bizi Bedi alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko programako dirulaguntzen 2025eko deialdiaren diru zuzkidura handitzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 22ko 451/2025 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko Araba(n) Bizi Bedi programako dirulaguntzen 2025eko deialdiari.

Programaren helburua da Arabako udalerrri txiki eta ertainetako etxebizitza eskaintza handitzea, etxebizitzak birgaituz eta ondoren alokairu sozial eta/edo babestura bideratuz. Horretarako, diruz lagundu daitezkeen lerro hauek jasotzen ditu deialdiak:

a) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak eskuratzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

b) Etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzea, gazteak alokairu erregimenean emantzipatzen laguntzeko. Zuzkidura bizitokiaren kasuan, lehendik bizitegi erabilera ez duten higiezinak baino ez dira onartuko.

c) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak birgaitzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

Programaren hasierako aurrekontuko zuzkidura honako hau izan zen:

LERROA	PARTIDA	2025	2026
Etxebizitza eskuratzea	10202. G/920102/76290109 Araba(n) Bizibedi programa	500.000,00	125.000,00
Emantzipaziorako birgaitzea	10202. G/920102/76290108 Araba(n) Bizibedi programa. Birgaitzea	375.000,00	93.750,00
Alokairurako birgaitzea	10202. G/920102/76290107 Araba(n) Bizibedi programa. Alokairua	1.100.000,00	275.000,00

Deialdian jasotakoaren arabera, laguntza lerro bakoitzean izan daitezkeen soberakinekin ekitaldi bereko beste lerro batzuk handitu ahal izango dira, eta, gainera, kopuru horiei hasierako zenbateko eta lerro bereko zenbateko gehigarri bat gehitu ahal izango zaie, baldin eta deialdia ebazteko unean aurrekontu baliabide egokia eta nahikoa badago.

Alokairu sozialerako eta/edo babesturako etxebizitzak eskuratzeko lerroa ebazteko, lerro horren hasierako zuzkidura 228.228,67 euro handituko da (182.582,94 euro 2025. urtean eta 45.645,73 euro 2026. urtean), eta, beraz, zenbateko osoa 853.228,67 euro izango da.

Gazteak alokairu erregimenean emantzipatzen laguntzeko etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzeko lerroaren ebazpenean izandako soberakinaren kontura egingo da gehikuntza (208.750,00 euro), eta deialdiaren laugarren apartatuan jasotako handitzeko aukeran oinarrituta (19.478,67 euro).

Horrenbestez, txostena aztertuta eta Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sail-leko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. 228.228,67 euroko gastua onestea, Arabako Foru Aldundiaren 2025. urterako aurrekontu "10202. G/920102/76290109 Araba (n) Bizi Bedi programa" aurrekontu partidan: 182.582,94 euro 2025. urtean eta 45.645,73 euro 2026. urtean.

Bigarrena. Onestea 228.228,67 euro gehitu daitezela Araba(n) Bizi Bedi programaren 2025eko deialdiko alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak eskuratzeko lerroan: 208.750,00 euro gazteak alokairu erregimenean emantzipatzen laguntzeko etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzeko lerroa ebatzi ondoren sortutako soberakinaren kargura, eta 19.478,67 euro deialdiaren laugarren apartatuan jasotako handitzeko aukeran oinarrituta.

Hirugarrena. Foru erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA